

2.-MERKATUAREN SEGMENTAZIOA:

Gure proiektua aurrera eramateko eta enpresak ondo funtziona dezan, nolabait bezeroak behar ditugu. Gure ideia, edozein bezero motarentzat zuzenduta dago baina gazteentzat bereziki, gazteek gehiago ulertzen baitute modaren munduaz.

Erabilgarria izango da, pertsona asko eta askok dutelako erabiltzen ez duten arroparen bat eta aukera hori aprobe txatu ahal izango dute, arropa hori gure dendara ekarriz. Arropa era ekonomikoan erosteko aukera ematen diegu baina prezio hori aldatu egin daiteke aukeratutako diseinuaren arabera. Betiere prezio justuak izango direla uste baitugu.

Informazio hori gazteengana hurbiltzeko, sare sozialak erabiliko ditugu. Gaur egun, gazte ia gehienek dituztelako sare sozialak eta gure ustez, horrek bultzada handia eman dezake gure proiektua aurrera eramaterako orduan.

